

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A eredu)
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A aukera)
2008/2009 IKASTAROA

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

Garai batean 30 urtera heldu orduko gazte gehienek ezkondu eta gurasoen etxetik **alde egiten** zuten. Gaur egun, berriz, gero eta gehiago kostatzen zaie gurasoen etxea uztea.

Matxin karrera bukatu eta lanean hasi zen enpresa handi batean, orain dela bost urte. Matxin bere gurasoekin bizi da: nahiz eta bere soldatarekin erositako pisu baten jabea den. Berak honelaxe azaltzen du: "Nire egoera oso eroso da. Ez dut etxeko lan astunik egin beharrik. Horregatik, -nahiz eta aitak oso begi onez ikusi ez-; gurasoen etxean segitzen dut.

Eta askatasun apur bat galtzen badut ere, pozik nago honela. Noiz arte horrela? Auskalo. Noizbait gurasoen etxetik alde egin beharko dudala jakin arren, ez naiz gai sentitzen noiz egingo dudan esateko".

Nekane Kimika ikasten du. Goiza fakultatean **eman** ondoren, hirurak aldera heltzen da etxera eta ordu horretarako amak badu babarrun platera prestaturik. "Ez naiz gaizki bizi -aitortzen du Nekane- baina, etxeko **lan** guztiak nik neuk egin behar izango ditudan arren, nahiago dut gurasoengandik aparte bizi. Nire txokoa eduki nahi dut Jose Luis nire *senargaiarekin* bizitzeko. Hala ere, pisuek duten prezioa ikusirik, lehenengo karrera amaitu, eta gero lana aurkitu behar dugu". Ordura arte, beraz, Jose Luisek eta biok lehenbailehen ezkondu nahi badugu ere, itxaron egin beharko dugu". Izan ere, hauexek izaten dira askoren arrazoiak edota aitzakiak gurasoen etxeko berotasunetik ez aldentzeko: lanik eza, *etxebizitzaren* prezioa, *heldutasun* falta...

Ulermen galderak

1. Zein da Matxinen egoera? Zergatik ez doa bere pisura bizitzera? (Puntu bat).
2. Zein da Nekanearen egoera? Zergatik ez du gurasoenetik alde egiten? (Puntu bat).
3. Matxinek ba al du pisurik? (Puntu bat).

Gramatika galderak

4. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik dauden perpausak, egitura honi jarraiki (Puntu bat).

30 urtera heldu orduko...

.....bezain...

Nahiz eta aitak oso begi onez ikusi ez.arren
Egin behar izango ditudan arren. Nahiz eta.....
Gurasoen etxetik alde egin beharko dudala jakin arren.ba.....ere
Eta askatasun apur bat galtzen badut ere.arren.

5. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman: *heldu, alde egin, eman, lan* (Puntu bat).

6. Egin ezazu esaldi bana testuko hitz atzizkidun horiek erabiliz. Hona hitzak: *senargaita, berotasun, etxebizitza* (Puntu bat).

Idazlana

Zure ustez, gazteek gero eta beranduago uzten dute gurasoen etxea? Zergatik gertatzen da hori? Zuk noiz duzu etxea uzteko asmoa? Zergatik? (Idatzi honi buruz 20 lerro gutxienez) (4 puntu)

UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA (A eredua)
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (B aukera)
2008/2009 IKASTAROA

ARGIBIDEAK:

Proposatzen diren bi azterketa hauetatik (A eta B) bat aukeratu eta galdera guztiak egin.

Galdera bakoitzaren bukaeran, lor daitekeen puntuazio gorena adierazten da.

80.000 lagunetik gora espero ditu bihar Iruñeko Jaso ikastolak Nafarroa Oinezen.

Jai «kultural, herrikoi eta propioa» eskainiko du. Ahal dela, trenez joateko deia egin dute. 40 musika talde inguruk parte hartuko dute Nafarroako ikastolen aldeko festan.

Iruñeko Jaso ikastolak jai «kultural, herrikoi eta propioa» eskainiko du datorren igandean, urriaren 19an. Horrela aurkeztu zuen atzo Nafarroako ikastolen egun handia Iñigo Mariñelarena Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendariak. Jaso ikastolako guraso, langile, ikasle, ikasle ohi eta laguntzaileak urte osoa *daramate* lanean nortasun berezia izan nahi duen jaia prestatzen. Hala, “Atera ezazu mihia” lelopean, Arga ibaiaren inguruan izango den zazpi kilometroko ibilbidean **hamaika** eskaintza izango dira goizean goizetik, eta, bide batez, munduko hamaika kultura bilduko *ditu* ekitaldiak.

Nafarroa Oinez 28. aldiz egingo da aurten, eta jaia berezia egingo duten hainbat eskaintza ditu egitarauak. Duela hainbat hilabete eskaintza «kaletarra, hauslea eta berritzailea» izango zela jakinarazi zuten, baita lortu ere. Sanduzelai, Mendebaldea eta Donibane auzoetatik doan ibilbidean bisitariaren harridura pizteko moduko berritasunak *daude*. Musikari dagokionez, bi txoko berezi izango dira hip hop eta jazz musika eskaintzeko. Jatorri kaletarra duten musika horiek Sanduzelain eta Argan izango diren guneetan emango dituzte. Horrez gain, berrikuntzen artean, egitaraua etxetik ez *daramatenek*, eskuko telefonoan jartzeko aukera izango dute Mendebaldea eta Argako guneetan, “bluetooth” konexioaren bidez.

Berrikuntzak berrikuntza, egitarau zabala eskainiko du Jaso ikastolak goizeko hamarretatik aurrera. Dantza, txalaparta, tailerrak, artzain txakurren erakustaldiak, antzerkia... Ekitaldi horiekin guztiekin batera, era askotako musika izango da ibilbidean zehar **banatuta** izango diren sei guneetan.

Nafarroan euskararen erabileraren eta sustapenaren alde lan egin dutenak omentzeko tarte bat gordeko da jai giroaren barruan. Euskadiko Kutxa eta Euskalerrria Irratiari egingo diete aurten omenaldia, eguerdiko hamabietan, Jaso ikastolaren bilera aretoan.

Antolatzaileek **azaldu** dute 80.000 eta 100.000 bisitari inguru biltzea espero dutela. Igandean «eguraldi bikaina» egingo duela adierazi du Jaso ikastolako zuzendari Unai

Arellanok. Antolatzaileek gogorarazi dute eguraldiak guztiz zapuztu zuela 1999. urtean Jaso ikastolak antolatu zuen Nafarroa Oinez eta orduan sortutako zorrak ordaintzeko datorren igandeko jaian bildutako diruaren parte bat erabiliko dutela. Horrez gain, ordutik ikastetxea egokitzeko egindako lanak ordaintzeko balioko du bildu den diruak. Nolanahi ere, Nafarroa Oinez helburuak harago ere *badoaz*. Ikastolen egitasmoaren berri eman ez ezik, euskarak kalean duen tokia handitu ere nahi du, besteak beste.

Era askotako kontzertuak izango dira datorren igandean, Iruñean. 40 talde inguruk joko dute ibilbideko sei gune eta bi txokotan. Rock, hip hop, punk, reggae, ska... Musika estilo asko entzungo dira, munduko txoko askotakoak. Txistulariak, txarangak eta trikitilariak ere izango dira.

© berria.info. 2008/10/8

Ulermen galderak

1. Jaso Ikastolako aurreko Nafarroa Oinez zer gertatu zen (Puntu bat).
2. Egitaraua eskuan ez izanez gero, nola jakinen dut zer dagoen egun horretan? (Puntu bat).
3. Zein da aurtengo leloa? (Puntu bat).

Gramatika galderak

4. Jar itzazu lehen aldian testuan ateratzen diren aditz hauek: *daude, badoaz, daramatenak, ditu* (Puntu bat).
5. Aldaketa morfosintaktikoak baliatuz berridatzi azpimarraturik dauden perpausak, egitura honi jarraiki (Puntu bat).

Orduan sortutako zorrak n zorrak

Du bildu den diruak -tako.....

Egitasmoaren berri eman ez ezik z gain

6. Beltz nabarmenez agertzen diren hitzen sinonimo bana eman: *azaldu, egokitzeko, banatuta, hamaika* (Puntu bat).

Idazlana

Egon al zara inoiz *Nafarroa Oinez*? Gustatzen al zaizkizu festa mota hauek? Konta ezazu ea egon zaren gisa honetako festetan, edo antzekoetan, zer egin duzun eta zer den gauzarik interesgarriena eta deigarriena (4 puntu)